

Errose Bustintza “Mañariko”

Liburu eran baturik bere lana itxi ez baeuskun be, Errose Bustintza ezaguna da euskal literaturan. Ezaguna izan ezeze, Bizkaiko euskal literaturak izan dauan emakume idazlerik onenetariko bat dogu, Bizenta Mogelegaz batera.

Gozotasuna dario Erroseren idazkerari. Narratzaileak beharrezko dauan irudimenak ez deutso hutsik egiten. Kontaketaren haria ondo garantzen daki. Eta danaren ganetik, bere osaba Kirikiño legez, herriko jakituria eta berbeta-moduen ezagule handia da. Horregaitik, gure

ipuin zaharren tradizioa beraren lumaz galbahe-tzen dauanean, duindu eta dotoretu egiten dau. Giro garbizaleko idazlea izanak ez deutso bere euskereari herri-usainaren freskotasuna kentzen.

Gudu aurreko urteetan asko idatzi eban, batez be *Euzkadi* egunkariko euskal orrian. Handixik atera dogu hemen eskeintzen dogun ipuintxo be.

Gaurko irakurle gaztearentzat errazago eta gozatsuago bihurtzeko, gaurregun ohi darabilgun bizkaiera-eredura moldatu dogu testua.

Jentilen Bolalekua

Gaurko eredura egokitua

Lehenengo egun baten, “Diabru-labarra”z hemen edestuten diran ipuintxu batzuk edestu neutsuzan, irakurle. Gaur oster, “Jentilen bolalekua”z zer edo zer baino gehiago esan behar deusut. Oraingoan be baina, bazala edo etzala... esan behar dodana, haritik-marira ipuinetan esango deusudaz.

Lehenengo baina, ezetan hasi baino lehen, “Jentilen bolaleku” miragarri hori, non dagoan ikusi behar dozu; ezjakinean, edo hobeto esateko, itsumustuan horra ta hona oinkada zororik egin ez dagizun be. Ganera barriz, gauzea, ikusirikoan askoz lehenago ulertzen da.

Gura badozu, hontxe bertantxe, astiro naiz arinka, zeuk ahal dozun lez, Untzillaitz erpinera zoaz.

“Kapana-buru”tik bazoaz hoba. Odeieta-ko landara behin igo ezker, handik osterik oste triski ta trauski joanaz, bape bizkorra bazara behintzat, behingo baten erpineratuko zara-ta. Han goian, txuntxur-txuntxurrean, egonalditxu bat be ederto egin zeinke; ta, neke osteko atsedena zero ertzean gozoro hartuta gero, Mañariko hatxartean sortua bazara, Urkiola alderantza ehun bat oinkada ardu-ra barik emon zeinkez; ta bestela, hor beheko urietan jaiorikoa bazara, labar handi horretan kontuz ibili beharra izango dozu. Ta, barrero beste horrenbeste oinkada alborantza emon orduko “zuti ta muti” Jentilen bolalekuan “plantauro” zara.

Eta orduan...

— Ene! Hau dok “jentilen bolalekua”? —irri-destainaz esango dozu—. Bedar guriz horniduriko landa txiki-txiki bat baino ez dok ba-ta! Landa hau, bere izenaren jabe ezetara be ezin leitekek izan. Lekutxu honetan bola-bola jokoan, nok inardu leikek gero! Ez lehen, ez oin, ez gero... Etxagok holakorik!

Holantxe da, izan be. “Jentilen bolalekua” deritxon lekua, bedar guriz apainduriko landa txiki-txiki bat baino ez da. Baina, hemeko baserritarrak esaten dabe, jentilak, laminak eta sorginak, gauza bakanak egiten ebezala; ta, aitaturiko landatxu horretan be, antxina, jentilak, bola jokoan ekiten ebela; ta, hori zala-ta, gerora, herriko jentek leku horri “Jentilen bolalekua” izentzat ezarri eutsola.

Jentilak, beso ta hanka luze-luzeakaz, hareitz-tantaiak lakoxe gizon handi-handiak ei ziran. Indartsuak barriz, eurak lakoak... Euren beso luzeak ikututen ebazan zugatzak, sendoenak izanda be, txirikilan jausten ei ziran; eta euren hankazarrak zapaltzen ebezan harriak, sarri askotan haustuta gelditzen ei ziran. Gizon bakan-bakanak ei ziran.

Herri honetako jentilak, gaur San Martin basotxonoa (*ermitea*) dagoan inguruan bizi ei ziran. Eta euren jolas bakanetan ekiteko, gauero-gauero Untzillaitz erpinera joaten ei ziran beti. Hona hemen jolas horreetzako ipuintxuak.

Ilargi eder-ederrak gau itun-ituna argi bereziz argiztuten eban gau miragarri baten, Oztortia-ko gure jentilok Untzillaitz txuntxurrera jolasari ekiten joan ziran.

—Gaur zetan jolastuko joagu? —jentil nagoiak orroaka esan eban.

—Gaur bolan! —enparau jentilak erantzun eutsoen.

—Tira ba, bolan. Bolan ekingo joagu ba.

—Jentil-buruak esan eban—. Harmokila ekarri ba aguro.

Orduan, euretariko batek, Markaida-ko labarra-ri harri-mokil handi bat kendu eutsan. Mila arrobako harri-biribila zan. Eta harmokila besapean ebala jentil-buruagana aurkeztu zan; eta ben-ben esan eutsan:

“Hor dok ba bolie
mila arrobako harrije
hankaz gora jaurtiteko
heuk gura dokan gurtije.”

Eta berehala bola-jokoan hasi ziran. Harri-mokilak kea ateraten eban; batera ta bestera indar handiz jaurtiten eban. Halako baten, harmokila bere lekutik at joan zan, eta bere zartada errimeak etxeko zugatz guztiak erroz-gora txirikilan jaurtin zituan. Halako triskantzarik!

Eta hatxa-behera bilin-bolaka etorri zan arte-zugatz batek, “Kukin” artzain-mutil errimea, buru erdian jota zerraldo lurreratu eban. Jentilek “Kukin” mutila maite eban; egunoro ardi-esne gozoz elikatzen ebazalako, kutun-kutun eban. Hori zala-ta, ezbehar itun horrek errime tamaldu eban. Eta guztiak batera hatxa-behera arropaladan jatsita, mutila seneratuten hasi ziran, horretarako erremedio batzuk eginaz.

Jentil batek, asunakaz arpegian joten eban; beste batek ostera, bularra aker-koipeaz igortzi, ta hurrengoak, bere barruko arnasea mutilaren ahora sartzen ekin... Horrek guztiok holan zirala be baina, mutilak zirkinik be ez.

Honetan, euretariko bateri, txistua jota dantzan, dantzan egitea otu jakon; mutila gazte-alaia zala-ta, behar bada alaitasunak seneratuko ebala usterik.

Gerotxoago, zugatz ganean gautxori batek, mozolo batek abestu eban: “Ujuju!”.



“Ze jentil da ze jentil oste
ze soinu ta ze txistu
behin mutila hil ezkeru
ezin leike biztu.”

Hori entzunik, jentilak ikaratu ziran; eta txori-
mozoloari ixil-mixilka esan eutsoen: “Gizon zan-
tzolari, nondik horrenbeste jakituri?”

Mozoloak baina, jaramonik bez; bere hegoakaz
“pla-pla” hotsa eginaz iges egin eban.

Jentilak, mozoloaren esanari jaramonda, Kucin
hilda egoala tamalez ohartu eben. Eta gau hatan
bertan, beste artzain-mutil baten bila hasi ziran; eta
hortik hemetik ibiliak ibili eginda be ezin izan
eben mutilik aurkitu. Ordean, besterik ezean, mutil
barria euren eskuz egitea erabagi eben.

Hona zelako soin atalakaz mutil barria egin
eben.

Lehenengo zotzezko oin-behatzak ezarri eutso-
ezan; gero barriz, sagar-ustelezko orpoak, kainabe-
razko txankak, kipulazko belaunak, bildots-narruz-
ko sabela, mahats-aihenezko hesteak, arto-lastoz-
ko besoak, egurrezko eskuak, karrazputzazko
bularra, haretzarrozko bizkarra, igeltsuzko arpe-
gia, tomatezko matrailak, arrautza lokazko begiak
eta kalabazazko burua.

Eta jentilak, euren eginiko mutila, lurrezko
pipea musturrean ebala, mendia gora bialdu eben.
Txori-mozoloak baina, itxura hatako mutila men-
dira igoten ikusi ebanean, barre-zantzoka hasi zan:
eta “Sasi-berezi” izentzat ezarri eutsan.

“Bazala, etzala ... ipuinetan esango.”

Beste gau baten be, gure jentilok, barrien barri
euren bolalekuan bola-jokoan hasi ziran. Eta hiru
edo lau, edo bost edo sei jokaldi egin orduko,
barriro be, mila arrobako armokil handia, hatxa-
bera bilin-bolaka joanaz “Intxalde”ko troka sako-
nera jausi jaken.

Hori jazorikoan, jentil harro batek ilargi mosu-
zabalari begirakada zorrotza jaurtin eutsan, hagin
artean amorrus esaten ebala:

“Ilargi zirtzila!
Bolearen saltua,
hik galduriko tantua!”

Eta orduan ilargi mosu-zabalak, jentil harroa-
ren soin errimea, harmokila bizkarrean ebala,
“ene” esateko be asti barik indar bereziz beregana-
tu eban. Zama astuna bizkarrean ebala, batetik bes-
tera mundu-zehar ibilteko eroan eban.

Lagunaren zoritxar handiak, enparau jentilak
lau-orrian ikaraz jarri zituan. Eta euretariko batek,
ilargi haserratua bigundu gurarik, harmokila jaus-
tearen errua, laino-zeharka ebilen hegoaize ikusie-
zinari ezarri eutsan.

“Haize! haize! Heu haz errudun.
Gure bolea haize-bitsetan heuk eroan.
Ibili ta ibili, ta ikusi ez.
Hoa, hoa, eure bidez;
guztiok itxirik bake-hutsez.”

Eta hegoaizea be, jentilaren berba garratzak
entzunaz haserratu egin zan. Eta indar handiz txis-
tuka hasita, Untxillaitz-ko jentil guztiak bere altzo
miragarrian hartuta eroan ebazan. Eta aldi luzean
haize-putzetan laino-zehar bakankiro erabilia,
hurrengo gauean inguruko haitz-mendietan saka-
banatuta itxi zituan. Batzuk Mugarran, beste bat-
zuk Arranaitz-en eta Artzate-n eta beste mendi
erpin batzuetan geratu ziralarik.

Gauerdiko ilun-une itzal-bildurgarrian, jentil
guztiak zantzoka hasita alkarregaz ederto baten
ulertu ziran.

—Ze arrano dok hau? —esaten eben—,
Indartsuak eta errimeak gareala baina. Hor goian
gogorragorik bajagok.



Eta guztiak era-batez mendi txuntxurretan belaunbikotuta hegoaizeari bular-joka parkeskatu eutsoen.

Halako arren beroaz, hegoaizearen txistu bildurgarria bat-batez ixildu zan; hegoaize indartsua bigundu egin zan, adiskidetu egin zan. Eta jentil guztiak barriro bere altzo miragarrian hartuta Untzillaitz erpinera ekarri ebazan.

Erpin hatan be danak era-batez belaunbikotu egin ziran; ilargiari euren lagunaren alde arren sutua egiteko. Eta ordu berean ilargi haserratuak be, bere haserre guztia alde-batera jaurtin eban; samurtu egin zan. Eta aspaldiz beraganatuta eukan jentil harroa, bere adiskideen arrenak zirala-ta, Untzillaitz erpinera harmokila ta guzti jaurtin eban.

Orduan hango poza ta zaratea! Pozaren pozez ikotika hasita, luzaroetan “kiribio-dantza”n ekin eban; euren barruko poza zelan edo halan agertzeko.

Otzortia-ko jentilok, bola-jokoan ezeze palanka-jokoan be ederto baten jokutzen ei eban. Palankari errimeak ei ziran. Euren palanka astunak, Untzillaitz-tik Anbotora ta Mugarrara jaurtiten ei ebezan.

Behin baten, jentilik indartsuenek eta gogorrenek, “nor-gehiagoka” palanka joko errime bat egitea erabagi eban. Eta, matraka ta eztabaida asko egin ostean, horretan ekiteko gertau ziran.

Lehenengoak, palanka sendoa eskuetan ebala, mendi txuntxurrean gerri-zutik esan eban:

“Hoa, hoa, haize-putzetan
hoa aguro Larrano-raino.”

Eta esku indartsuz jaurtin eban palankeak, Larranoraino bertaraino heldu zan. Bigarrenak be, bestea letxe jagita, gorantza begira esan eban.

“Hoa, hoa, haize-putzetan
hoa Anboto puntaraino.”

Eta beste barik, palankeak haize-bitsetan joanda, Anboto ganeko labarrean beso-betez sartu zan.

Hirugarren jentilak be, palankeak jaurtitean, bere guraria, enparau jentilen aurrean agertu eban:

“Hoa, hoa, laino zeharka
hoa Mariren kobaraino.”

Eta hirugarren palankeak be, bere ugazabaren guraria osoan betetu eban. Hain zuzen be, jaurtiriko palankeak, irrirtzi baten lainoak aguro zeharkatuta Mari Urrika Anbotoko dama ezagunaren bizitokira sartu zan. Eta palankearen zartada errimeak, Mari Urrika hartzulotik kanpora jaurtin eban; eta “dama” gaxoa, laino-zehar su ta gar joanda, Mugarrako hartzulo nagosian sartu zan.

Baina gure jentilok, Mugarrara be palankak jaurtin ebezan. Eta Mari Urrikak, handik be nora edo hara hanka-jokoa egin behar. Artzateko landarra joanda, hantxe haitz-bazterrean aienatu zan.

Ganeko egun baten baina, Mari Urrikak, jentil gaizkinai, “atzeko-martizena” ederto ekarri eutsoen. Jentilok, Otzortia-ko landan “kontu-kontari” egozala, Mari Urrika hodei ertzetik, su ta gar, buztanetik suzko txinpartak dariola igaro zan, buztaneko txinparta mingarriak jentil artera jaurtiten ebazalarik.

Orduan, hango negarra eta hango ulua! Batari begiak erre eutsazan, besteari besoak, eta hurrengolari, hankak eta abar.

Eta jentilok hurrengo egunetan, errearen minak eraginda, negarrez eta garrasika ibili ei ziran. Harrezkero, barriz, gure jentil errimeok, Mari Urrikari palankarik jaurtiteko adorerik arean be ez ei eban izan. Mari Urrika, Mari Urrika zala-ta, begiak gorantz zuzentzeko be bildurrez ei egozan.

